

# Syriza sindromea



**BIXENTE SERRANO IZKO**  
IDAZLEA

**E**z da harritzekoa, kanpaina honetan, Syriza greziar alderdiaz eta Tsipras lehendakari ohiaz aipamen bate-re ikusi/entzun ez izana, nahiz eta pisu handia izan duen, nik uste, greziar eskarmentu hark. Nahita ahazturik jendearen aurrean, baina presente, oso, kanpaina diseinuetan. Oroitu Tsipras-ek aurkeztu programaz eta irabaziriko hauteskondeez: nola jarri ziren hala Europar Batasuna (EB) nola Nazioarteko Diru Funtsaren aditu ekonomiko ultraliberalak. Makurrarazi zuten Tsipras, ezin izan zien beronek aurre egin, Grezia eraman zuten hondamendira eta hurrengo hauteskundeetan hain justu herriaren zigortzaileak atera ziren irabazle. Bai, gehiegi estutu zutela Grezia aitortu zuten gero aditu haietako batzuek, baina ez zuten deus ere egin beraien neurriak arintzeko.

*Zezen larru*-ko geografian, ez estatu eremuko alderdiek ez iritzi emaileek ez dute gogora ekarri greziar kasua. Unergaria da ez Unidas Podemos (UP) ez Más País-ek (MP) ezer ez aipatu izana: bertze guztiak probestu ziratekeen, hain ziur,

PSOEk, ezinean berriro ere bera bakarrik, hautu egin beharko du, hauteskunde berriak egin ezean, norekin elkartu: edo PPrekin CEOEk agindu bezala (...) edo Syriza sindromeari aurre egin

greziar eskarmentuaz ezkerreko aukerak hondamendira eramateko. Bertze arrazoiengatik utzi dute ahanzturan ere Syri-zaren umiliazio hura bertze hautagaiek. Ultraliberalek, espainiar abertzalekerian oinarritu dutelako euren kanpaina eta ez zitzaiekeen ongi etorri Espainia Handia-ren gaineko kanpo-botere horien kateak aipatzea. Berdintsu PSOERI dagokionez: behin bakarrik eta hanka galanki sartzen aipatu du Sánchezek horrelakorik, CEOE-ren beldurra jakinaraziz, ezkerreko gobernu bat UPEkin osatuko balu.

Hedabide handietan ere aipurik agertu ez izanak mass-media horien apustua utzi du agerian: laugarren boterearen mitoak erreka joz, botere bakarraren (IBEXaren) laugarren besoa baizik ez dela agerian utziz.

Espero izatekoa hauteskundeetan: PSOEk, ezinean berriro ere bera bakarrik, hautu egin beharko du, hauteskunde berriak egin ezean, norekin elkartu. Edo PPrekin CEOEk agindu bezala, Koalizio Handia hauteskunde sistema aldatu, bipartidismoari habe gogorragoak jarri, PPren legeak bere horretan mantendu, ekonomia ultraliberala garatzen jarraitu, autonomien eskumenak hutsaren hurrengo bihurtze aldera... Edo Syriza sindromeari aurre egin.

Sindrome horrek jotako Espainia Handia berrezarrita erreka jo arte, Sánchez historiara pasatu nahian. Eta lortzeko bidean dago, nahiz eta ez preskeski bere hantustean amestu duen Historiara, sindromeari aurre egiten ausartzen ez bada. Bitartean, Nafarroa, oi, Nafarroa!, zer hautu eginen duen. ●

ARGIA

*Bizi nahi duen herria!*

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA



Jende gehiagori  
ahotsa emateko,  
lagun gehiagorengana  
heltzeko eta  
eragiten jarraitzeko  
**EGIN ARGIAKOA!**